

BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKA SAILA

3000

AGINDUA, 2013ko ekainaren 12koa, Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuarena, biodibertsitatearen kontserbazioan ezagutza sortzeko proiektuak egiten dituzten irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuei diru-laguntzak ematea arautzen duena.

Euskal Herrirako Autonomia Estatutuaren 11.1.a) artikuluan xedatutakoaren indarrez, Euskal Autonomia Erkidegoak dauka eskumena ingurumen eta ekologia gaietan Estatuaren oinarritzko legeria garatzeko eta oinarritzko legeria hori Autonomia Erkidegoaren lurraldean betearazteko.

Aipatutako eskumena Ingurumen eta Lurralde Politika Sailak gauzatzen du, betiere lehendakariaren abenduaren 15eko 20/2012 Dekretuko 13. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz; izan ere, dekretu horren bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatu eta horien funtzioak eta jardun-arloak finkatzen dira.

Otsailaren 27ko 3/1998 Legearen 23. artikulua Herri Administrazioen esku uzten du dibertsitate biologikoaren kontserbazio eta erabilpen jasangarrira aplikatutako ikerketa bultzatzea (3/1998 Lege Orokorra, Euskal Herriko Ingurugiroa babesteari buruzkoa).

Bestalde, 2002ko ekainaren 4ko Jaurlaritzaren Kontseiluan onartutako Garapen Iraunkorreko Euskal Ingurumen Estrategian (2002-2020) azpimarratu egiten da nolako garrantzia duen natura-inguruneari eta biodibertsitateari buruzko datuak eta informazioa jasotzeak, kudeaketa-tresna eraginkorrak berehala garatu ahal izateko eta espezialista-taldeak sendotzeko. Jasangarritasuna lortzeko bidean nahitaezko baldintzak direla adierazten da.

Halaber, Eusko Jaurlaritzak, 2011ko uztailaren 12an egindako bilkuran, besteak beste, honako Erabaki hau hartu zuen: «Euskal Autonomia Erkidegoko III. Ingurumen Esparru Programa 2011-2014» onartzea. Helburuak: aniztasun biologikoaren galera gerarazteko helburu estrategikoa, ekosistemak berrezartzea eta lurzoruen artifizializazioa mugatzea; horiek 5 helburu operatibotan eta 9 jardun-lerrotan banatzen dira, eta horien artean dago, espezie, habitat eta ekosistema lehentasunezkoen buruzko ezagutza hobetzea.

Helburu horiek guztiak betetzeko asmoz, Ingurumen eta Lurralde Politika Sailak diru-laguntza hauek sustatzen ditu.

Horrenbestez, Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen abenduaren 22ko 196/2013 Dekretuak ematen dizkidan eskumenez baliatuz, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuan xedatutakoaren arabera, eta Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kontura ordaindu beharreko diru-laguntzei eta bestelako laguntzei aplikatu beharreko gainontzeko xedapenak kontuan izanik, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Agindu honen helburua lehiaren prozeduraren bitartez diru-laguntzak ematea arautzea da; irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuek jaso ditzakete laguntza horiek, baldin eta biodibertsitatearen kontserbaziorako ikerketa aplikatuko azterketak eta lanak egiten badituzte, Euskal Autonomia Erkidegoan, 2013ko urtarrilaren 1etik 2013ko abenduaren 31ra arte.

Irabazi-asmorik gabeko erakunde bakoitzari gehienez ere 2 proiektutarako eman ahal izango zaio diru-laguntza.

2. artikulua.– Egitasmoen deskribapena.

Diru-laguntza jaso dezaketen proiektuen xedea izango da ikerketa aplikatuko azterketa eta lanak egitea, biodibertsitatearen kontserbaziorako. Gai hauen inguruko lanak izan behar dira:

a) Natura 2000 Sarea.

- Kontserbazio bereziko eremu izendatzeko agirietan jasotako azterketak eta lanak, eta horien kontserbazio-neurrien onarpena (bai orain arte onartutakoak, baita bideratzen ari direnak ere).

- Natura 2000 Sarearen koherentzia eta lotura hobetzeko elementuei buruzko azterketak eta lanak: paisaia-elementuak, hiri inguruko eremu berdeak, ibai-tarteak: zatikatzea, dinamika, analisia eta oneratzeta.

b) Basoko fauna eta florako espezie mehatxatuak, bai autonomia erkidegoan eta bai Europar Batasunean. EAEn lehentasuna duten intereseko espezieen proposamena hartuko da aintzat, www.ingurumena.net web-orrian eskuragarri dagoena.

- Gutxi aztertutako taxoi inbentarioa, katalogazioa eta kartografia egiteko azterketak (adibidez, landare ez-baskularrak, ornogabeak eta abar).

- Fauna eta florako espezieen banaketa, urrakortasuna eta mehatxu-mailaren gaineko azterketak.

- Habitaten kontserbazio-egoeraren adierazgarri izan daitezkeen espezieen gaineko ikerketak.

c) Biodibertsitatearen inguruko beste elementu batzuk.

- Natura 2000 Saretik kanpoko habitat naturalak eta erdi-naturalak, eta bereziki hauskorrek, kalteberak edo lurraldea lotzeko interesekoak diren babestutako naturguneak: hezeguneak, heskaiak, baso-uharteak, itsasertzeko gunek batzuk eta abar.

- Hezeguneak eta uretako beste ekosistema batzuk: uretako ekosistemak kudeatzeko oinarriak, Natura 2000 Sarearekin eta Uraren Esparru Zuzentaruarekin loturiko kontserbaziorako irizpideei jarraituz.

- Kartografiatzea eta kudeaketa-proposamenak, espezie exotiko inbaditzaileentzat.

- Natura-ondarea kontserbatzeko estrategiak eta ondare horri balioa emateko neurriak, geodibertsitatea barne.

- Tokiko ekosistemak, habitatak edo espezieak babestu eta oneratzeko irizpideak.

- Paisaiari aniztasuna ematen dioten ohiko kultura elementuak eta biodibertsitatea kontserbatzeko horiek duten balioa.

- Natura-ingurunearen, landa-eremuen eta hiri-eremuen paisaiaren kalitatea aztertzea, balioes-tea, eta hobetzeko jarraibideak.

- Klima aldaketak Euskal Autonomia Erkidegoko biodibertsitatean izan dezakeen eraginari buruzko eta/edo biodibertsitatearen elementuak klima aldaketara egokitzeko estrategiei buruzko azterketak.

- Aisia eta turismoko ekintzek natura-ingurunearen eta kultura-ondarearen kontserbazioan eta/edo andaketan duten eragina.

- Basokoak ez diren eta desagertzeko arriskuan dauden baliabide begetalak ezaugarritu eta ebaluatzea.

3. artikulua.– Aurrekontu-zuzkidura.

Aurreko artikuluetan finkatutako helburuetarako, agindu honetako xedapen gehigarrian ezarritakoa eragotzi gabe, 200.000 euro bideratuko dira.

4. artikulua.– Beste diru-laguntza edo laguntza batzuekiko bateragarritasuna.

1.– Agindu honetan araututako diru-laguntzak bateragarriak izango dira diru publiko zein pribatuaren kontura helburu bererako eman daitezkeen beste diru-laguntzekin. Nolanahi ere, salbuespen izango dira hurrengo paragrafoan xedatzen diren diru-laguntzak.

2.– Agindu honetan araututako diru-laguntzak ez dira bateragarriak izango erakundeak Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren aurrekontuaren kargura helburu bererako jaso ditzakeen beste diru-laguntza edo laguntzekin.

3.– Nolanahi ere, laguntzen zenbateko osoak ezin izango du proiektuaren kostuaren ehuneko ehun gainditu.

5. artikulua.– Erakunde onuradunak.

1.– Agindu honek arautzen dituen diru-laguntzen onuradun izateko, irabazi-asmorik gabeko elkarte edo erakunde pribatua izan behar da, herri-administrazioa parte ez dela, eta elkarreak edo dena delakoak ingurumena, natura edo biodibertsitatea babestu edo ikertzeari lotutako helburua eduki behar du edo ingurumenarekin lotutako ekintzetan ibilbide egiaztagarria, eta bere jardun-eremuak Euskal Autonomia Erkidegoa izan behar du. Halaber, erakunde horiek dagokien erregistroan legez osatuta eta idatzita egon behar dute, agindu hau argitaratu eta –gutxienez– urtebete lehenagotik.

2.– Irabazi-asmorik gabeko beste elkarte eta erakunde batzuk natura-ondarearen eta biodibertsitatearen babes eta/edo azterketarekin loturiko esperientzietan duten ibilbidea egiaztatze, eskabideko A eranskineko A2 atala bete behar da: erakundeek garatu dituzten edo garatzen ari diren ekintzen laburpena. Dena dela, Sailak egoki irizten dizkion agiri osagarriak eskatu ahal izango dizkio eskabidea aurkeztu duen erakundeari.

3.– Irabazi-asmorik gabeko erakundeek, euren kideen artean boluntarioak baldin badituzte, boluntarioei buruzko ekainaren 25eko 17/1998 Legeari jarraitu beharko diote.

4.– Erakunde onuradunek eguneraturik izan beharko dituzte zergekiko eta Gizarte Segurantzarekiko obligazioak.

5.– Erakunde onuradunei diru-laguntzak emateko, eta, hala dagokionean, horiek ordaintzeko, ezinbestekoa izango da dirua itzultzeko edo zehapenen bat ezartzeko ezein espediente amaitua izatea, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren erakunde autonomoek xede bererako ematen dituzten diru-laguntzen esparruan.

6.– Deialdi honetan ezingo dira lehiatu, dagokion zehapenak ezarritako denboraldian, sexuagatiko diskriminazioan erortzeagatik zehapen administratibo edo penalen bat duten erakundeak, eta Emakume eta Gizonen berdintasunerako Legearen araberrako debekuagatik zigortutakoak ere ez.

7.– Ezingo dute parte hartu deialdi honetan ingurumen-legeria bete ez eta hutsegite larri eta oso larriengatik zigortuak izan diren erakundeek, neurri zuzentzaile egokiak gauzatu eta dagokion zigorra betetzen ez duten bitartean.

6. artikulua.– Diruz lagundu daitezkeen gastuak.

1.– Diruz lagundu ahal izango dira proiektua gauzatzearekin zuzenean loturik dauden gastu guztiak, jarraian adierazten diren gastuak izan ezik. Izan ere, azken horiek bakar-bakarrik diruz lagundu ahal izango dira adierazten diren portzentaje hauetan:

a) Langile-gastuak: halakotzat hartuko dira erakunde onuraduneko langileek sortutakoak bakarrik, langile horiek langile-zerrendakoak nahiz proiekturako berariaz kontratatuak izanik ere. Gastu horiek, oro har, nominen bidez edo lan-kontratuen bidez justifikatuko dira. Gastu horiek proiektuaren gastu osoaren % 40 arte lagundu ahal izango dira diruz.

b) Inbertsioak: halakotzat hartuko dira informatika-ekipoak, argazki-ekipoak edota bestelako aktibo finkoak erosteko gastuak. Gastu horiek proiektuaren gastu osoaren % 30 arte lagundu ahal izango dira diruz.

c) Gastu orokorrak: halakotzat hartuko dira erakundearen egiturak proiektua edo jarduera antolatzeke egindako kudeaketa-gastuak (telefonoa, elektrizitatea, posta, fotokopiak...). Gastu horiek proiektuaren gastu osoaren % 5 arte lagundu ahal izango dira diruz. Gastu horiek justifikatzea ez da beharrezkoa.

d) Beste merezimendu batzuk: halakotzat hartuko dira dieta eta joan-etorrietarako gastuak eta, euren izaera dela medio, a, b eta c idatzi-zatietan justifikatu ezin izan direnak. Gastu horiek gastu osoaren % 100 arte lagundu ahal izango dira diruz.

2.– Ezin izango dira diruz lagundu zeharkako zergak, balio erantsiaren gaineko zergak eta beste batzuk, berreskuratu edo konpentsatzekoak direnean.

3.– Bidezkoa bada, 12. artikuluan deskribatutako ebaluazio-organoari dagokio diru-laguntza zein gastuk jasoko duen finkatzea, aurreko paragrafoetan xedatutakoari jarraituz.

7. artikulua.– Diru-laguntzen zenbatekoa.

1.– Norgehiagoka bidezko diru-laguntzat hartuko dira laguntzak, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 51.4 artikuluan ezarritakoaren arabera.

2.– Diru-laguntzaren zenbatekoa, 6. artikuluan azaldutakoa kontuan izanik, onartutako aurrekontuaren % 80 izango da, eta proiektu bakoitzerako, ezingo du gainditu 20.000 euroko zenbatekoa.

8.– artikulua.– Eskabideak aurkezteko epea eta lekua.

1.– Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

2.– Eskabideak Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritzan (Donostia kalea 1, Lakua 2, 2. solairua, 01010 Vitoria-Gasteiz), Zuzenean zerbitzuko Herritarren Arretarako Puntuetan eta azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan aurreikusitako edozein erregistrotan aurkeztu beharko dira; eta eskabideak Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzarako zuzendariari helaraziko zaizkio.

3.– Datu pertsonalak babesteko 15/1999 Lege Organikoaren arabera, eskatzaileei jakinarazten zaie ematen dituzten datuak fitxategi batean bilduko direla. Fitxategi horren helburua da diru-laguntzen deialdi hau eta gaiarekin lotutako beste edozein administrazio-espeditente ere kudeatzea. Fitxategi horren arduraduna Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritza izango da. Datuak eskuratu, zuzendu, deuseztatu eta aurkatzeko eskubideaz Sail bereko Zerbitzu Zuzendaritzan baliatu ahal izango da. Horretarako, helbide honetara jo beharko da: Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz (Araba).

9. artikulua.– Aurkeztu beharreko agiriak.

1.– Eskabidea egiteko inprimakia (1-A eranskina), behar bezala beteta. Proposatutako egitas-moa azaltzeko txostena paperean eta formatu digitalean aurkeztuko da (testu tratamendua).

2.– Eskabidea sinatu duenaren ordezkariak egiaztatzen duen dokumentua.

3.– Dagokion ogasunaren ziurtagiri eguneratua, zerga-betebeharrak bete dituela egiaztatzen duena, baita elkarte erroldatuta dagoen Balio Erantsiaren Gaineko Zergaren erregimena ere.

4.– Dagokion lurralde-diruzaintzaren ziurtapen eguneratua, Gizarte Segurantzarekiko bete-beharrak betetzen direla egiaztatzen duena.

5.– Identifikazio Fiskaleko Kodearen fotokopia.

6.– Erakundearen inskripzioari buruzko ziurtagiri eguneratua, eta, izaera juridikoaren arabera, dagokion erregistroan inskribatutako azken estatutuen kopia.

7.– Erakunde eskatzailearen arduradunak egindako ziurtagiria, lan bererako eskatutako edo jasotako bestelako diru-laguntzei buruzkoa (A5 inprimakia).

8.– Kideen artean boluntarioak dituzten irabazi asmorik gabeko erakunde pribatuen kasuan, Boluntariotza Erakundearen Errolda Orokorrean izena emanda egotearen ziurtagiria, Boluntariotzako Erakundearen Errolda Orokorrearen funtzionamendu-araudia onartu eta boluntariotzari buruzko zenbait alderdi arautzen dituen irailaren 1eko 169/2000 Dekretuan horren inguruan ezarritakoaren arabera.

9.– Erakunde eskatzailea fundazioa edo onura publikoko elkarte bada, azken kontu-ematearen egiaztatzea, hurrenez hurren Babesletzan edo Elkartearen Erregistro Orokorrean aurkeztutakoa.

10. artikulua.– Aurkeztutako eskabidean egindako akatsak zuzentzea.

Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritzak aurkeztutako eskaeran akatsak edo zehaztasun-erak atzematen baditu, erakunde eskatzaileari jakinaraziko dio, eta hamar eguneko epea emango dio horiek zuzentzeko; eta ohartaraziko dio, hala egiten ez badu, eskaerari uko egin diola ulertuko dela, alde aurretik dagokion ebazpena eman ondoren. Ebazpen hori Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 42. artikuluan ezarritakoari jarraituz emango da.

11. artikulua.– Diru-laguntzak kudeatzeko ardura duen organoa.

Ingurumen eta Lurralde Politika Saileko Ingurumen Sailburuordetzako Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritzari dagokio deialdi honetan aurreikusitako laguntzak kudeatzeko eginkizunak betetzea.

12. artikulua.– Ebaluazio-organoa.

1.– Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren zuzendariak eta Ingurumen eta Lurralde Politika Saileko bi teknikariak (Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren zuzendariak izendatutakoak) kide anitzeko organoa osatuko dute, aurkeztutako eskabideak aztertzeko eta ebaluatzeko. Azaldutako ebaluaketa egiteko, ingurumenaren gaian ospea duten pertsonen aholkua eskatu ahal izango da.

2.– Ebaluazio-organok dagokion ebazpen-proposamena aurkeztuko dio Ingurumeneko sailburuordeari. Proposamen horretan zehaztuko da zein proiektu jaso dezakeen diru-laguntza eta

berorren zenbatekoa, betiere agindu honen 13. artikuluan aipatutako esleipen-irizpideen eta aurrekontu-mugen arabera.

13. artikulua.– Balioespen-irizpideak eta esleipen-prozedura.

1.– Biodibertsitateari buruzko ikerketa aplikatuko azterketa eta lanak baremo honen arabera baloratuko dira:

a) Azterketa eta lanek agindu honen 2. artikuluan zerrendatutako gaiekiko duten doikuntza-maila, gehienez ere 40 punturekin baloratuko da, honela banatuta:

- 2.a) artikuluko gaiak, 40 puntura arte.
- 2.b) artikuluko gaiak, 35 puntura arte.
- 2.c) artikuluko gaiak, 25 puntura arte.

b) Burututako azterketa edo proiektuaren kalitatea, interesa edota horrekin eskuratu den informazioa, betiere 2. artikuluan aipatutako lerroekin zerikusia izanik (gehienez, 20 puntu).

c) Lanean parte hartuko duten pertsonen eta erakundeen gaitasuna, esperientzia eta curriculum, agindu honen 2. artikuluan deskribatu diren antzeko ekintzak burutzeko (gehienez 10 puntu)

d) Azalpen argia egitea, eta metodologia eta lan-plana helburuetara eta espero diren emaitzeara egokitzea (gehienez 15 puntu).

e) Diru-laguntza deialdi honen bidez diruz lagunduko diren beste proiektu batzuekiko duten koordinazio-maila edo koordinatzeko gaitasuna; aurreko faseetan burututako zenbait azterketa eta proiektu garatzeko edo horietan sakontzeko gaitasuna (gehienez 15 puntu).

2.– Euskaraz egiten diren proiektuak gehiago baloratuko dira; gehienez ere, 5 puntu gehiago emango zaizkie.

3.– Balorazioan orotara berrogeita hamar (50) puntu baino gutxiago lortzen dituzten eskabideak ez dira diruz lagunduko. Agindu honetan ezarritako prozedurari amaiera ematen dion ebazpenean, hala badagokio, aipatutako gutxieneko puntuazioa ez lortzeagatik diru-laguntzarik gabe geratu diren proiektuen zerrenda jasoko da.

4.– Diru-laguntza lehiaketa bidez esleituko da: eskaerak baietsiko dira balioespen handiena lortu dutenetatik hasi eta txikiena lortu dutenetara, betiere deialdian ezarritako baldintzak beteta, dagozkion muga barruan, eta aurrekontu-kreditua agortu arte.

14. artikulua.– Ebazpena.

1.– Ingurumeneko sailburuordeak emango du ebazpena, zeina erakunde interesdunei jakinaraziko baitzaie eskaerak aurkezteko epea amaitu eta –gehienez ere– lau hilabeteko epean. Gainera, emandako diru-laguntzen zerrenda Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, informazio gisa, jendeak horren berri izan dezan.

2.– Epea igaro eta jakinarazpenik jaso ezean, eskabideak ezetsizat joko dira, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 44.1 artikuluan ezarritakoari jarraikiz, eta betiere, hargatik eragotzi gabe aipatutako legeak Administrazioari ezartzen dion ebazpena emateko betebeharra.

15. artikulua.– Diru-laguntza ordaintzea.

1.– Emandako diru-laguntzaren % 50 laguntza onartu ondoren ordainduko da, 16.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

2.– Diru-laguntzaren gainerako % 50a ordaintzeko, berriz, erakunde onuradunak jarraian adierazten diren agiriak aurkeztu behar ditu, artikuluko honen 3. paragrafoan adierazten diren epeetan:

a) Justifikazio-inprimakia, behar bezala beteta (2-B eranskina).

b) Jatorrizko fakturak edo fotokopia konpultsatutakoak, nominak, lan-kontratuak edota bestelako ordainketa-ziurtagiriak, proiektua benetan gauzatu dela egiaztatzen dutenak. 6.1.c) artikuluan adierazitako gastu orokorrak ez dira justifikatu behar.

c) Proiektuan sortutako materialen kopia. Georeferentziatutako kartografia (hala badago), Eusko Jaurlaritzako sistemekin bateragarria den formatu digitalean. Proiektua euskarri informatikoan aurkeztu beharko da, zeina bateragarria izango baita Eusko Jaurlaritzaren informatika-sistemekin. Horretaz gain, paperean egindako kopia bat ere aurkeztu beharko da.

d) Dagokion ogasunaren ziurtagiri eguneratua, zerga-betebeharrak bete dituela adierazten duena, baita elkarte erroldatuta dagoen Balio Erantsiaren Gainerako Zergaren erregimena ere.

e) Erakundearen arduradunak egindako ziurtagiria, azterketa edo proiektu bererako jasotako bestelako diru-laguntzei buruzkoa (B3 inprimakia).

3.– Aurreko paragrafoan aipatzen diren dokumentuak hilabeteko epean aurkeztuko dira, proiektuaren amaiera-egunetik aurrera, eta, betiere, 2014ko urtarrilaren 20a baino lehenago.

16. artikulua.– Erakunde onuradunen betebeharrak.

Agindu honetan araututako diru-laguntzak jasotzen dituztenek, honako betebeharrak hauek izango dituzte:

1.– Emandako diru-laguntza eta, horrekin batera, agindu honetan aipatutako baldintza eta arau guztiak onartzea. Alde horretatik, diru-laguntza esleitu izana jakinarazten duen ebazpena jaso eta 10 eguneko epearen barruan, diru-laguntzaren onuradunek berariaz eta idatziz hari uko egiten ez badiote, diru-laguntza onartu egin dutela ulertuko da.

2.– Diruz lagundutako jarduerak 2013ko abenduaren 31rako amaitu beharko dira.

3.– Argitalpen, liburuxka eta, oro har, publizitate orotan, berariaz adierazi behar da Ingurumen eta Lurralde Politika Sailak diruz lagundu duela, Eusko Jaurlaritzaren erakunde-nortasunari buruzko araudian xedatutakoaren arabera (Eusko Jaurlaritzaren erakunde-nortasunaren eskuliburua arautzen duen abuztuaren 31ko 318/1999 Dekretua, EHAA-n argitaratua, 205. zenbakian).

4.– Azterketek eta argitalpenek genero-berdintasunaren ikuspegia izango dute, eta ez dute elementu diskriminatzaileak jasoko ez hizkuntzan ez eta irudietan ere.

5.– Diruz lagundutako azterketa edo lanetan dagoen informazio tekniko eta grafikoa erabiltzeko eskubidea –doan eta eskusibotasunik gabe– Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren esku uztea, Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren informazio-sistematan erabiltzeko eta sartzeko, baita edozein baliabide edo formatu bibliografikotan, ikus-entzunezkoetan, informatikotan edota teknikaren erabilerak ahalbidetzen duenetan hedatzeko eta/edo argitaratzeko ere.

Erakundearen ustez, emandako informazioaren zati bat uztailaren 18ko 27/2006 Legearen 13. artikuluan aurreikusitako salbuespenei loturik badago (27/2006 Legea, ingurumenaren gaian informazioa eskuratzeko, publikoki parte hartzeko eta justiziara jotzeko eskubideak arautzen dituen), alde batetik, dokumentazioan bertsio osoa entregatuko da, eta bertan adieraziko da zein zati egon daitezkeen salbuespenei loturik, eta, bestetik, bertsio laburtua, zati horiek kenduta. Bertsio hori izango da jendaurrean jarriko dena.

6.– Diru-laguntzen erakunde onuradunek azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategineko 50.2 artikuluan ezarritako betebeharrak beteko dituzte; batez ere, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak –laguntzen xedea fiskalizatzeko dituzten funtzioetan jardunez– eskatzen dien edozein informazio eman beharko dute.

7.– Diru-laguntzak zein helburutako eman diren, helburu horretarako bakarrik erabiliko dira.

17. artikulua.– Diru-laguntzak jasotzeko baldintzak aldatzea.

Diru-laguntza emateko kontuan hartutako baldintzak aldatzen badira, eta, edozelan ere, beste administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatuetatik beste diru-laguntza batzuk edo bestelako laguntzak jaso, edota, kasua bada, helburu bererako beste diru-sarrera zein baliabide batzuk eskuratu badira, diru-laguntza emateko ebazpena aldatu egin ahal izango da; kasu horretan, dena dela, diru-laguntzen onuradun izateko arau honetan jarritako oinarritzko baldintzak betetzen jarraitu beharko da.

Ondorio horietarako, Ingurumeneko sailburuordeak kitapen-ebazpena emango du, doitu egingo da emandako diru-laguntzaren kopurua, edo, egoki bada, lortutako gehiegizko diru-kopurua itzuli beharra aginduko da.

18. artikulua.– Betebeharrak ez betetzea eta laguntza itzultzeko prozedura.

Diru-laguntzaren onuradunak oinarri hauetan ezarritako edozein baldintza bete ezean, organo eskudunak, interesdunei entzun ondoren, diru-laguntza jasotzeko eskubidea galdu duela adieraziko dio, eta beharrezkoa izanez gero, dagokion zenbatekoa Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzultzeko betebeharra ere erabaki ahal izango du, hala ezartzen baita azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginean, eta Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kontura ematen diren diru-laguntzen bermeei eta haiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautzen duen abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan.

Halaber, beste laguntza eta diru-laguntzekiko bateragarritasun-maila gaindituz gero, onuradunak itzuli egin beharko du diru-laguntza honen helburu den jardueraren kostutik gora jasotako dirua, agindu honetako laugarren artikuluan adierazitakoaren arabera. Hala ere, hori guztia ez da eragozpen izango zehapenak ezartzeko, ez eta kalte-ordainak edota, dagokionean, erantzukizun penala eskatzeko ere.

Dagozkien legezko ondorioei begira, zenbateko horiek sarrera publikotzat joko dira.

19. artikulua.– Errekurtsoak.

Agindu honen aurka, administrazio-bidea agortzen baitu, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal zaio Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuari, hilabeteko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko

auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Laguntzak ebatzi aurretik, hirugarren artikuluan jasotako guztizko zenbatekoa aldatu ahal izango da, eskatutako laguntzen kopuru osoa kontuan izanda, eta Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren aurrekontua gauzatu eta gero agortu gabe geratzen den kopuru erabilgarriaren arabera. Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren zuzendariaren ebazpen batek emango du horren berri.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Agindu honetan berariaz jaso gabe geratu den guztirako, bi araudi hauetan ezarritakoa aplikatuko da: Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legean eta azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginean ezarritakoa.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko ekainaren 12a.

Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburua,
ANA ISABEL OREGI BASTARRIKA.

2013ko uztailaren 2a, asteartea

1. ERANSKINA

A

ESKABIDE ORRIA

BIODIBERTSITATEAREN KONTSERBAZIOAN EZAGUTZA SORTZEKO PROIEKTUAK EGITEN
DITUZTEN IRABAZI-ASMORIK GABEKO ERAKUNDE PRIBATUENTZAKO DIRU-LAGUNTZAK

2013

Espedientearen zk.

Erakundearen izen osoa		
Forma juridikoa		
Erakundearen arduraduna (izena, abizenak, NAN, telefonoa eta helbide elektronikoa)		
Helbidea:		
Herria:		Posta-kodea:
Lurraldea:		
Telefonoa.:	Faxa.:	E-maila:
IFZ:		
Proiektuaren arduraduna (izena eta abizenak)		
Proiektuaren izenburua		
Eskatutako diru-laguntza	euro	

Goian aipatutako erakundeak:

- Ingurumen eta Lurralde Politika Sailak 2013rako argitaratutako diru-laguntza deialdian parte hartzea eskatzen du eta proiektu honetarako datuak zehatzak direla egiaztatzen du.
- Hau adierazten du: diru-laguntza edo laguntza publikoak eskuratzea debekatuko dion zigor edo administrazio-zehapenik ez duela; eta ez duela diru-laguntzak lortzea galaraz diezaiokeen inolako legezko debekurik, sexuaren ziozko bereizkeria egiteagatik jarri litezkeenak barne, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen seigarren azken xedapenean arautakoaren arabera

Honenbestez, erakundearen legezko ordezkariak eskabide hau izenpetzen du.

.....n, 2013ko(a)ren(e)an.

Erakundearen legezko ordezkariaren izenpea eta zigilua

Ingurumen eta Lurralde Politika Saila

Eusko Jaurlaritza

Datu pertsonalak babesteko 15/1999 Lege Organikoaren arabera, eskatzaileei jakinarazten zaie ematen dituzten datuak fitxategi batean bilduko direla. Fitxategi horren helburua da diru-laguntzen deialdi hau eta gaiarekin lotutako beste edozein administrazio-espeditente kudeatzea. Fitxategiaren arduraduna Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritza da. Datuak eskuratu, zuzendu, deuseztatu eta aurkatzeko eskubideak sail bereko Zerbitzu Zuzendaritzan baliatu ahal izango dira. Horretarako, helbide honetara jo beharko da: Donostia kalea, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz (Araba).

Erantsi beharreko dokumentazioa.

- 1.– Eskabidearen A inprimakia (1. eranskina), behar bezala beteta.
- 2.– Eskabidea sinatu duena zeren ordezkaria den egiaztatzeko ziurtagiria.
- 3.– Dagokion Ogasunaren eguneratutako egiaztagiria, zerga-betebeharrak bete dituela adierazten duena, baita elkarte erroldatuta dagoen Balio Erantsiaren gaineko Zergaren erregimena ere.
- 4.– Dagokion lurralde-diruzaintzaren ziurtagiri eguneratua, Gizarte Segurantzako betebeharrak bete dituela adieraziz.
- 5.– Erakunde eskatzailearen Identifikazio Fiskalerako txartelaren fotokopia.
- 6.– Egiaztagiri eguneratua, erakundea izaera juridikoaren arabera dagokion erregistroan izena emanda dagoela egiaztatzen duena, eta erregistratu diren estatutuen kopia.
- 7.– Proiektu bererako eskaturiko edo jasotako beste diru-laguntza batzuei buruzko ziurtagiria, erakunde eskatzailearen arduradunak egina (A5 inprimakia).
- 8.– Erakunde eskatzailea fundazioa edo onura publikoko elkarte bada, hurrenez hurren Babesletzan edo Elkarteen Erregistro Orokorrean aurkeztutako azken kontu-ematearen ziurtagiria.
- 9.– Proiektu teknikoaren dokumentazioa.

A1

DATUEN ALTA / HIRUGARREN INTERESDUNA**A****HIRUGARRENA IDENTIFIKATZEKO DATUAK**

(1) NAN / IFK

(2) Izena eta bi abizenak / Sozietatearen izena

.....
.....

Helbidea

Posta kodea..... Herria

LurraldeaHerrialdea

B**BANKUAREN DATUAK**(1) Bankua (2) Agentzia (3) K D K/korrontea

(4) Jabea

Oharra: kontu korrontearen jabeak hirugarren interesduna bera behar du izan.

C

Bankuaren adostasuna

Sinadura eta zigilua

DHirugarren interesdunaren
adostasuna

Sinadura eta zigilua

EV. Sail edo erakundearen
onespena

Sinadura eta zigilua

Data / / /

Datu pertsonalak babesteko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa betez, Ekonomia eta Ogasun Sailak jakinarazten dizu, dokumentu honen bitartez jarri dituzun zure datu pertsonalak fitxategi automatizatu baten sartuko ditugula, ondoren, erabili ahal izateko.

Aipatutako Lege horretan jasotzen den moduan, datuok ikusi, zuzendu edo ezabatu nahi dituzula edo ez dituzula jarri nahi adierazteko, honako helbide honetara jo dezakezu: Ekonomia eta Ogasun Saileko Zerbitzu Zuzendaritza, Donostia kalea, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz.

INPRIMAKIAK BETETZEKO JARRAIBIDEAK

A) Pertsona fisiko edo juridikoa identifikatzeko datuak, ondoren adierazten denaren arabera.

1.– Pertsona fisikoa: NAN, AIZ edo pasaportearen zenbakia.

Pertsona juridikoak: identifikazio fiskaleko kodea.

2.– Pertsona fisikoak: izena eta bi abizen.

Pertsona juridikoak: izena edo izen soziala.

B) Banku-datuak.

1.– Bankuaren kodea eta izena.

2.– Agentziaren kodea eta izena.

3.– Titularrak bankuan duen kontuaren kontrol digitua eta zenbakia adieraziko da.

4.– Izena eta bi abizenak, pertsona fisikoen kasuan, eta izena edo izen soziala, pertsona juridikoen kasuan.

Kontu korrontearen jabeak hirugarren interesdun bera behar du izan.

C) Bankuaren sinadura eta zigilua, bankuaren datuak ziurtatzeko.

Banku-erakundearen sinadura eta zigiluaren ordeztu, hirugarren interesduna banku-kontuaren titularrak dela dioen bankuaren agiria erabili ahal izango da.

D) Hirugarren interesdunaren sinadura eta zigilua, agirian azaltzen diren datuak zuzenak direla ziurtatzeko.

E) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak betetzeko.

DOKUMENTAZIO EUSKARRIA

Kasuan kasuko fotokopia erantsiko da:

– Nortasun agiri nazionala (NAN).

– Atzerritar-identifikazioaren zenbakia (AIZ), atzerritarrak bizitokia bertan badu.

– Pasaportea, atzerritarrak bizitokia bertan ez badu.

– Identifikazio fiskaleko txartela, pertsona juridikoa bada.

2013ko uztailaren 2a, asteartea

A2

ERAKUNDEAREN DATUAK

Erakundearen helburuak.

Helburu soziala.

Jardun eremua.

--

Erakundearen orotara zenbat bazkide dagoen.

Emakumeak	Gizonezkoak	Orotara

Erakunde honek burututako edo burutzen ari den ingurumen-arloko jardueren laburpena.

Jarduera	Jardueraren azalpena	Zein urtetan egina

A3

PROIEKTUARI BURUZKO DATU TEKNIKOAK

Proiektuaren izenburua.

--

Gaia eta proiektuaren justifikazioa, non-zertan aplika daitekeen.

Jarduera non egingo den.

--

Zein hizkuntzatan egingo den.

--

Zenbat jendek hartuko duen parte.

Boluntarioak			Bestelakoak		
Emakumeak	Gizonezkoak	Orotara	Emakumeak	Gizonezkoak	Orotara

Parte hartzen duten beste erakundeak (zenbat pertsona, zenbat erakunde, zeintzuk, zer egingo duten,...).

Hartzaileak.

Datak.

Hasiera-data	
Amaiera-data	

2013ko uztailaren 2a, asteartea

Baliabide materialak, giza baliabideak eta antolamendukoak.

Egitaraua, Metodologia eta egutegia.

Ustez, zein material sortu beharko diren.

Ebaluaketa egiteko metodologia.

Oharrak

Proiektua Eusko Jaurlaritzako informatika-sistemekin bateragarria den euskarri informatikoan aurkeztuko da, eta kopia osoa paperean.

2013ko uztailaren 2a, asteartea

A4

DATU EKONOMIKOEN LABURPENA

DIRU SARREREK ETA GASTUEK BAT ETORRI BEHARKO DUTE NAHITAEZ

A) Aurreikusitako diru-sarrerak.

Jatorria	Zenbatekoa
Guztira	

B) Aurreikusitako gastuak.

	Kontzeptua	Zerga-oinarria	BEZa	Guztira
Beste gastu batzuk				
	Beste gastuak, guztira			
Pertsonal gastuak				
	Pertsonal gastuak, guztira			
Inbertsioak				
	Inbertsio gastuak, guztira			
Gastu orokorra				
	Gastu orokorrak, guztira			
Guztira				

A5

PROIEKTU HONETARAKO ESKATU EDO JASO DIREN
EDO EZ DIREN DIRU-LAGUNTZEI BURUZKO ZIURTAPENA

..... jaun/andreak
erakundearen legezko ordezkariak
 proiekturako

ZIURTATZEN DU (adierazi eta bete aukera egokia):

- Erakunde honek EZ duela eskatu edo jaso inolako diru-laguntzarik proiektu honetarako.
- Erakunde honek EZ duela aurreikusi diru-sarrerarik lortzerik proiektua egitetik, ez eta sarrerak, aleak edo bestelakoak saltzetik, nahiz publizitatetik, matrikulazio-kuotetatik edota bestelako kontzeptuetatik ere.
- Erakunde honek diru-laguntza hauek eskatu edo jaso dituela proiektu honetarako.

Erakundea	Eskatutako zenbatekoa	Jasotako zenbatekoa

- Erakunde honek proiektu hau egiteagatik honako diru-sarrera hauek lortzea aurreikusi duela.

Kontzeptua	Unitate-prezioa	Unitate-kopurua	Guztira

Eta, dagozkion ondorioetarako hala jasota gera dadin, aitorten hau sinatu dut
(e)n, 2013koaren(e)(a)n.

Legezko ordezkariaren sinadura.

2013ko uztailaren 2a, asteartea

2. ERANSKINA

B

JUSTIFIKAZIO-ORRIA

BIODIBERTSITATEAREN KONTSERBAZIOAN EZAGUTZA SORTZEKO PROIEKTUAK EGITEN
DITUZTEN IRABAZI-ASMORIK GABEKO ERAKUNDE PRIBATUENTZAKO DIRU-LAGUNTZAK

2013

Espedientearen zk.

Erakundearen izen osoa		
Forma juridikoa:		
Erakundearen arduraduna (izena, abizenak eta NAN)		
Helbidea:		
Herria:		Posta-kodea:
Lurraldea:		
Telefonoa:	Faxa:	E-maila:
IFZ:		
Proiektuaren arduraduna (izena eta abizenak)		
Proiektuaren izenburua		
Emandako diru-laguntza		euro

.....(e)n, 2013ko(a)ren(e)na.

Erakundearen legezko ordezkariaren izenpea eta zigilua

Ingurumen eta Lurralde Politika Saila

Eusko Jaurlaritza

Datu pertsonalak babesteko 15/1999 Lege Organikoaren arabera, eskatzaileei jakinarazten zaie ematen dituzten datuak fitxategi batean bilduko direla. Fitxategi horren helburua da diru-laguntzen deialdi hau eta gaiarekin lotutako beste edozein administrazio-espeditente kudeatzea. Fitxategiaren arduraduna Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritza da. Datuak eskuratu, zuzendu, deuseztatu eta aurkatzeko eskubideak sail bereko Zerbitzu Zuzendaritzan baliatu ahal izango dira. Horretarako, helbide honetara jo beharko da: Donostia kalea 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz (Araba).

Erantsi beharreko dokumentazioa.

- 1.– Justifikazioaren B inprimakia (2. eranskina) behar bezala beteta.
- 2.– Jatorrizko fakturak edo fotokopia konpultsatuak, nominak, lan-kontratuak edota bestelako ordainketa-ziurtagiriak, proiektua benetan gauzatu dela egiaztatzen dutenak. 6.1.c) artikuluan adierazitako gastuak ez dira justifikatu behar.
- 3.– Dagokion Ogasunaren eguneratutako egiaztageria, zerga-betebeharrak bete dituela egiaztatzen duena, baita elkarte erroldatuta dagoen Balio Erantsiaren gaineko Zergaren erregimena ere.
- 4.– Jardueran sortutako materialen kopia.
- 5.– Proiektu bererako eskaturiko edo emaniko beste diru-laguntza batzuei buruzko ziurtagiria, erakunde eskatzailearen arduradunak egina (B3 inprimakia).

B1

JARDUERARI EDO PROIEKTUARI BURUZKO DATUAK

Jarduera non egin den.

--

Zein hizkuntzatan egin den.

--

Zenbat jendek hartu duen parte.

Boluntarioak			Bestelakoak		
Emakumeak	Gizonezkoak	Orotara	Emakumeak	Gizonezkoak	Orotara

Parte hartu duten beste erakundeak (zenbat pertsona, zenbat erakunde, zeintzuk, zer egingo duten...).

Hartzaileak.

Datak.

Hasiera-data:	
Amaiera-data:	

Erabilitako baliabide materialak, giza baliabideak eta antolamendukoak.

Egitarauaren garapena eta egutegia (irudi grafikoak erantsi, hala badagokio).

2013ko uztailaren 2a, asteartea

Sortutako materialak.

Proiektuaren emaitzen ebaluaketa.

Oharrak:

- Proiektua Eusko Jurlaritzako informatika-sistemekin bateragarria den euskarri informatikoan aurkeztuko da, eta kopia osoa paperean.

2013ko uztailaren 2a, asteartea

B2

DATU EKONOMIKOAK

BEHIN BETIKO DIRU-SARREREN ETA GASTUEN
ZENBATEKOEK BAT ETORRI BEHARKO DUTE NAHITAEZ

A) Behin betiko diru-sarrerak:

Jatorria	Zenbatekoa
Guztira	

B) Behin betiko gastuak:

	Kontzeptua	Zerga-oinarria	BEZa	Guztira
Beste gastu batzuk				
	Beste gastuak, guztira			
Pertsonal GASTUAK				
	Pertsonal gastuak, guztira			
Inbertsioak				
	Inbertsio-gastuak, guztira			
Gastu OROKORRA				
	Gastu orokorrak, guztira			
Guztira				

B3

PROIEKTU HONETARAKO JASOTAKO DIRU-LAGUNTZEI BURUZKO ZIURTAPENA

..... jaun/andreak
erakundearen legezko ordezkariak
 proiekturako

ZIURTATZEN DU (adierazi eta bete aukera zuzena):

Erakunde honek EZ duela jaso inolako diru-laguntzarik proiektu honetarako.

Erakunde honek diru-laguntzak jaso dituela proiektu honetarako.

Erakunde publikoa	Eskatutako zenbatekoa	Jasotako zenbatekoa

Erakunde honek proiektu hau egiteagatik honako diru-sarrera hauek lortu dituela.

Kontzeptua	Unitate-prezioa	Unitate-kopurua	Guztira

Eta, dagozkion ondorioetarako hala jasota gera dadin, aitorten hau sinatu dut
(e)n, 2013koaren(e)(a)n.

Legezko ordezkariaren sinadura.